

## GEZALA - BASAUNTZ AUZO BATZARRA

Igorren, 2011ko urri lehenengoaren 19ean

Bertaratutakoen artean hamazazpi auzotar dagoz, eta aparte bost zinegotzi Bildutik, Igorre Danontzaten ordezkaria eta EAJ-PNVko ordezkari bat. Gogoan hartu hiru alderdien artean egindako ekarpenak eta aportazioak euki dabezala aurrekontu parte hartzaileen batzarrak.

Igorreko herria, Danon aukera logoaren aurkezpena egin da, eta Igo aurrekontuetara aurtengo parte hartze batzarrak, auzoka eta sektoreka iragartzeko erabili dogunarena be.

Sarrerak nondik datozen azaldu da, grafikoki modu labur eta eskematiko baten.

Gastuen artean gastu fijoak %35a, erakundeei aportazioak , inbertsinoak obretan,%30a besteak, soldata eta prestakuntza ehuneko ehunaren zatirik handiena.

Gabezien atalean oinezkoentzako babes falta, aisiladi gunerik egoteko eza, euriagaz autobus geralekurantzako bidea lupezten da, Firestonetik Ormazabalera doan tubo txikia dala, auzotako ikusgaitasuna eskasa dala hainbat bidegurutzetan eta Igotransen kudeaketa hobetzeko beharrezana ikusi da udal gobernutik. Argazkiak erakutsi dira egoera horren erakusgarri, auzokoak ados agertu dira detektatu diran gabeziakaz.

Lurgorriko urteeran dagozan arbolak futbol zelairantza botatzea eskatu dau auzotar batek, kotxeen abiadura dala eta arriskua gixitzeko eta beste bitartekoen bat be.

Gezalako bidean dagoan ate bat ia legez dagoan galdetu dabe hainbat auzotarrek, burdi bidea izan dalako. Orain arte alkate izan dan Galder Olibaresek hartu dau berba ate horren legeztapena arazoitzeko udaleko teknikoaren txostenen arabera beti be.

Beste jabeen esku dagozan terrenoak edo lursailak itxikeriagaitik ze neurri hartu galdetu dau herritar batek, denuntzia bat sartzeko udalarera etortzeko proposamena egin jako eta udalak berak ofizioz arituko dala esan dau alkateak.

Oinezkoentzat babes sistemak ezartzea ondo ikusten da, espaloirik ez baina bai babeserako zeozer. Bidean dagozan zuloak be salatu ditu herritar batek.

Aisialdi gunea hurrengo aurrekontuetan sartzeko proiektua dala ikusi da, eta oinezkoen bidea autobus geltokiraino doana hobetzea, firestonen ondotik ormazabal ondora doan tubo diputazioagaz gestionetako lehentasuna emongo jako urtean zehar egingo diran batzarretan. Auzoko bideetan bisibildadea hobetzeko bitartekoak jarriko dira, auzotako bideetan bedarrak ebagiteko urtean birritan egiteko konpromisoa ezin dala hartu adierazo dau alkateak, diputazioak bere politika orokorra aplikauta gatxa dalako.

Igotrans en gertatu dana argitan hasi dira auzokoakaz. Taxi zerbitzua indartzeko eta propaganda egitea egoki ikusten dau udal gobernuak baina auzotarrek ez dabe kezka handirik erakutsi.

Aisialde gune barria erakutsi danean bankuak jartzearen beharrezana ikusi dau herritar batek.

Gasa eta azerea eroatea be inportante ikusi dabe hainbat herritarrek aisialdi gunea baino.

Argiak ipintea be beharrezkoa dala ikusten dau herritar batek, baina kejaz agertu dira urteetako proposamena dalako eta ez dalako egiten.

Soraya Lizundiak, ongizateko zinegotziak ongizate eta bardintasunari buruz berba egin dau. Indarkeriaren kontrako protokoloa martxan jartzearen inportantzia aitatu dau, asteburuan espainiar estaduan pasau diran kasuak adibide.

EAJ-PNVko ordezkariak mankomunidadeak bardintasunaren alde egin dauan beharra aitatu dau, alkarlanean ekintzak indartuz.